



ARAUTEGIA

HONDARTZA BOLEIBOLA 2024

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Boleiboleko Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO XLI. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu, 2024ko maiatzaren 25an Getxo Fadura Kiroldegian (Bizkaia). Hona hemen arautegia:

1. JOKATZEKO MODUA

Mailak; infantilak, 2010 eta 2011ean jaiotako neska-mutilak.

Partida guztietan taldeko kideen eskola lizentziak aurkeztu beharko dira, edo bestela, parte-hartzaileen triptikoa, dagokion Foru Aldundiaren zigilu eta sinadurarekin. Horiek aurkezten ez badira, NAN edo pasaporte originala aurkeztu beharko da aktan inskribatu ahal izateko, bestela, ezin izango du ekintzan parte hartu.

2. TALDEEN OSAKETA

Talde bakoitzak 4-6 jokalariz izango ditu, entrenatzaileaz gain.

Erakunde bakoitza bi jokalariz osatutako bi talde desberdinekin lehiatuko da. Talde bakoitzak parte-hartzaileen inskripzio buletinean lehiaketa hasi aurretik adierazitakoekin osatu beharko du.

Partidaren aktan lau parte-hartzaileen izen emateak osatu beharko dira, lehenengo taldea eta bigarren taldea osatzen dutenen artean bereiztuz.

Entitate bakoitzak libreki erabakiko du partida bakoitzaren hasieran zein taldek jokatuko duen lehen seta. Hautatu ez diren bi pertsonak nahitaez jokatu beharko dute bigarrena. Hirugarren seta jokatuz gero, klub bakoitzak libreki erabakiko du taldea nola osatu aktan izena eman duten lau pertsonen artean.



Set batean parte hartzen ez duten jokalariek jokalekutik kanpo egon behar dute beti.

3. PARTIDUAREN IRAUPENA

Jokatzeko formatoa: 2x2

Hiru setetik gehien irabazten dituen ekipoa izango da irabazle. Seta irabazten du 2 puntuko aldea ateraz 21 puntu lehen lortzen dituenak. Dena den, hirugarren seta bi puntuko aldea ateraz 15 puntu lehen lortzen dituenak irabaziko du, baina ez dago gehieneko puntu mugarik.

Aldaketak set bakoitzaren amaieran bakarrik egin daitezke eta bi hutsarte eskatu ahal izango dira.

4. BALOIA ETA SAREAREN ALTUERA

Baloia Mikasa VLS200 izango da.

Sarearen altuera hau izango da :

Nesken kasuan : 2,10 m.

Mutilen kasuan : 2,24 m.

5. SARIAK

Ondorengo sariak emango dira:

Garaikur bana lehen, bigarren eta hirugarren sailkatutakoei.

6. EZBEHARREN AURREAN

Lesio edo ezbeharrik sortu ezkeror nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.



7. AZKEN OHARRA

Arautegi honetan azaltzen ez diren kontu guztietarako, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:

- a. 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b. 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa
- d. AGINDUA, 2024ko urtarrilaren 16koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2024ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLI. edizioaren deialdia egiteko dena.
- e. EBAZPENA, 2024ko urtarrilaren 25ekoa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, 2024ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLI edizioko lehiaketako epaile bakarra izendatzen duena.
- f. Boleiboleko Euskal Federazioaren Arautegian erabakitakoa.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkerro, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.